

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko maiatzaren 29a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Leitza • Ekitaldiz gainezka datorren Aste Kulturala hasiko da gaur.

Ubaldo Gonzalez • «Elkartasun merkatua gero eta gehiago zabaldu nahi genuke».

Liburutegi Orokorren destinu petrala



• MIKEL SAIZ

Nafarroako Liburutegi Orokorren etorkizuna zintzilik dago. Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko plazan duen egoitza ez da aski handia eta erakargarria. Gobernua eta Udala afera moldatzen hasi badira ere, ez dira ados jartzen kokalekuan. Finean, irizpide ezberdinek talka egin dute.



Araitz ● Eingo al deu... euskeraz?

Euskararen aldeko ekitaldiak asteburuan, jendea kontzientziatzeko

Araitz-Beteluko Euskera Batzordeak badaramatza hogei urte euskeraren aldeko lanean. Gainerantzeko jendeak ere ahalegin honetan parte har dezan nahi dute.



Araizko Udaleri ere eskatuko zaio euskara kalean ez ezik, barruko funtzionamenduan ere bultzatzeko.

● MAILLOPE

BATEK BAINO GEHIAGOK BEREHALA gaizki pentsatu ohi du «eingo al deu...» esanez gero. Giza harremanekin lotura estua duen ekintza bat etortzen zaio burura, askori. Baina Araitz-Beteluko Euskera Batzordeak luzatutakoa ez da hain proposamen lizuna. Batzordeak luzatutakoa, gonbidapena da, eta giza harremanekin ere badu lotura, baina ez hainbestekoa. «Eingo al deu...» leolari, bigarren zatia gehituz gero, argi geratzen da, Batzordearen benetako asmoa: «Eingo al deu... euskeraz?». Hitz joku pikante hori aitzakitzat hartuta, euskararen alde diharduen talde honek, bihar eta etzi izango diren ekitaldietara gonbidatu nahi dituzte bailarako bizilagunak.

Protesta eta salaketa ere izango dira bi egunotan, baina leloak dioen moduan, hauek ere, ironiaz beterik, baina ulertu behar duenak ulertzeko modukoak. Esaterako, bihar arratsalde, bertso-kalejira-poteatzailea egingo da. Hau da, tabernaz taberna ibiliko dira, trikitiaren laguntzaz eta bertsoak abestuz. Andoni Tolosa, Euskera Batzordeko kideak dio-

enez, «tabernetan, askotan, gaztelaniaz egin ohi dugu, nahiz eta euskaldunak izan. Kalejira poteatzailearekin, ordea, egun batez behintzat, giro hori euskalduntzea lortuko dugu». Horretarako, pegatina berezi batzuk jarriko dituzte nonahi. Pegatina horiek mezu argi bat izango dute, hau ere, ironikoa, bederen. «Ni, naiz. ¿Y tú?». Andoniren hitzetan, «batenbati pegatina hori jarriz gero, zer pentsa eman beharko lioke».

Udaletxeen deia

Igandean berriz, administrazioa ere euskaldundu behar dela aldarrikatuko dute. Egun, nahiz eta alkate gehien gehienak euskaldunak izan, bailaretako udaletxeetan paper ofizialak eta agi-

riak, sarritan, gaztelaniaz egin ohi dira. Batzordekoen ustez, horrek ez du zentzu gehiegirik. Egoera hori salatu asmoz, herriz herriko ibilaldi bat antolatu dute. Atallutik habiatuko dira, goizeko 11:00etan, eta Azkarate aldeira hurbilduko dira. Ondoren, Uztegiara joango dira, eta gero Gaintzara. Ibilbide horrek betek du goiz partea, eta arratsaldean, berriz, Intza eta Betelu bisitatuko dituzte, baina lehenik eta behin, eguerdian, Gaintzan izan eta gero, Azkueko zelaian herri bazkaria izango dute. Herrian herriko alkateari, agurra dantzatu ondoren, zigilu bat emango zaio. Paper ofizialak sinatzeko erabiltzen diren zigilu horietako bat. Izan ere, erderaz idatzirikiko zaharra eskatuko zaio,

eta horren truke, euskera hutsean egonen den berri bat emango diote.

«Ekitaldi sinboliko hauen bidez», dio Andoni Tolosak, «bi gonbite luzatu nahi dizkiegu herritarrei: batetik, beti euskeraz egin dezatela, eta bestetik, Araitz-Beteluko Euskera Batzordean parte har dezatela. Izan ere, Batzordea, ez da inolaz ere talde itxia. Gainera, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta aberatsagoa izango da bere lana. Aberatsagoa eta emankorragoa. Gaur egungo egoera duela hogei urtekoa baino hobea den arren, oraindik lan asko egin beharra dago Araitz-Betelun, euskerak merezitako lekua eskura dezan».

→ Urko Aristi

Burlata

‘Ezetz asmatu’ lehiaketaren finala gaur Euskalerrria Peñan

‘EZETZ ASMATU’ IRUÑERRIKO euskaltegiatiko ikasleen kultur lehiaketaren finala jokatu da gaur Burlatako Euskalerrria Peñan. Finala arratsaldeko 7:00etan hasiko da eta sailkatu diren zortzi taldeak ariko dira nor baino nor. Karrikiri, Iruñerriko euskaldunen elkarteak eta Euskalerrria Irratiak antolatu duten lehiaketan AEK, IKA, Miluzeko euskaltegia, Hizkuntz Eskola, IBI eta Nafarroako Gobernuako funtzionarioen euskaltegi-ko ikasleak hartu dute parte. Guztira hiru kidek osatutako 65 talde izan dira. Lehiaketa apirilaren 28an hasi zen eta kanporaketen ondoren gaur egingen da finala. Euskaltegian ez ezik, klasketik kanpoko egunerokotasunean ikasleak euskaraz hitz egitea bultzatzeaz gain, ikasten dihardutenei euskal kultura modu atseginagoan helarazi nahi izan du lehiaketak.

Gaur ez da guztia lehia izanen eta finalistek festarako aukera ere izanen dute. Partehartzaileek moka du bat egiteko aukera izanen dute Euskalerrria Peñan bertan eta giroa berotuko du Modesto akordeoi jole arantzarrak. Gainera, irabazleek Artza jatetxean afaltzeko sei lagunentzako gonbita jasoko dute, eta bigarren gelditzen direnek beste sei lagunentzako aforria izanen dute Catachun.

→ Irene Arrizurieta

denbora pasa

XAMAR



Nazionalismoaren kontra

Herriak herri direnetik gaitzik makurrenetariko bat da nazionalismoa. Nazionalismoak sortu ditu milioika hildako eragin dituzten gerlarik latzenak. Nazionalismoak herria dute oroz gain, guzien gain. Nazioari dagozkion ezaugarriak dira inguruko (non ez munduko) hobereenak: hizkuntzarik osotuena eta landuena (finena, goxoena, eztiena...), paisaiarik ederrenak, klimarik kutziagarriena... funtsean harritu egiten dira zerengatik bertzeak ez dira oino goartu hontaz guziaz. Nazioaren izenean guzia (omen) da bidezko, lege barnean, gainean edota azpian, eta lasai egon, naziokideek beti entendatuko dituztelako egin ekintzak, zernahi izanik ere. Talde kontzientzia omen. Gu gutarre-

kin, eta bertzetarrei gertatzen zaienak ez du inport. Aski zuten ez izatea hain bertzetarra. Pentsa zazu: mintzo dira diferent, musika dute desberdin eta, gainera, oro har zikinagoak dira.

Bai, bistan dena da, zuzendu beharra dutela. Erakutsi egin behar zaie ongi elekatzen, ongi bereizten mundua (ni / zu, gu / bertzeak; moderno / zaharra, dotorea / zakarra... gutarra / bertzetarra, zuzen / makur); eta ados ez badaude, burrukara, garaitu, beharrezkoa izanik akatu... zernahi nazioaren izenean. Hain zuzen helburuak garbitu du ekintzarik zikinena, koldarrena, pentsaezina.

Nazionalismoak egin (egiten) duena begi bis-

tan da: frantsesek kanakoekin, alemanak frantsesekin, frantsesak alemanekin, alemanak juduekin, juduak arabeeekin, turkoak kurdoekin, alemanak turkoekin, txinoak tibetanoekin, japonesak txinoekin, espainolak amerindioekin, brasileñoak yanomaniekin... luza zazu zuhaurrek denbora eta papera baduzu.

Hau guzia ikusirik, derradan argi eta garbi, ni ez nizela nazionalista. Euskal nazionalismoa? Txisterik ez, faborez. Nazionalismoan maixu direnei (horregatik dituzte *estatu nazionalistak*) alde txarrak kopiatu baizik ez da egin; amua iren-tsirik *nazionalista*-tzat hartuak izan eta, makurrago dena, sinistu.

Hala gabiltza.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Leitza ●

Kultur Astea prest dago

Zinema, antzerkia, erakusketak eta beste izanen dira hamar egunez

Gaur hasi eta datozen hamar egunotan erakusketak, zinema, antzerkia eta bestelakoak bistatuz goatzeko parada izanen da Aste Kulturean.



Leitzarren artean arrakasta handia du urtero egin ohi den nekazal lanabesen erakusketak.

● ARTXIBOKOA

KULTUR ASTEAREN XX. ALDIRAKO, Leitza Kultur taldeak ekintza ugari antolatu ditu. Egitarau oso zabala egin dute eta adin guztietako lagunek parte hartzeko modukoa antolatzen saiatu dira. Helburua euskal kultura bere zabalasunean landu eta eskaini nahi izatea izanik, lan gogorra egin dute antolatzaileek.

Kultur taldekoek adierazi duteenez, «urtero ildo honi jarraitzen diogu. Gure kulturak duen garrantzia erabatekoa da guretzat eta hori da, hain zuzen, zabaldu nahi dugun mezua eta edukia. Era berean, saiatu gara herritar guztien intereserako ekintzak antolatzeko, denok parte hartzeko».

Gaur zabalduko den nekazal lanabesen erakusketak 18 urte bete ditu jadanik. Hala ere, oraindik ikusmin handia sortzen du: «Oso errotuta dago. Errepikatu egiten den arren ez du arrakasta galtzen, herritarrek parte hartze zuzena dutelako. Haien lanabesak eta artelanak ikusgai daude eta erakusketara hurbiltzen direnek ikusteko aukera dute».

→ Idoia Martinez-Barranco

Maiatzak 29, ostirala

22:00: 40 ordu filma eskainiko dute zinemak.

Maiatzak 30, larunbata

11:00: Altxorraren bila jokua plazan.

20:30: Faltzesko abesbatza eta Asketa elizan

21:30: Hogei urte hauetan Kultur Taldetik eta Kultur Astean lan eta parte hartu dutenen arteko afaria.

Maiatzak 31, igandea

11:00: XVIII. Eskulangintza erakusketa.

12:00: Trikitixa, txalaparta, taloak.

17:30: Txalaparta erromeria.

Ekainak 1, astelehena

20:00: «Euskal Selekzioa bai» mahai-ingurua zinemak. (Abel Barriola, Iñaki Perurena, Gabriel Saralegui, ESAITeko partaide bat)

Ekainak 2, asteartea

14:00: irrati saio berezia plazan. Euskararen autobus ibiltaria

Ekainak 3, asteazkena

20:00: «Pirinioetan zehar» diapositiba emanaldia zinemak.

Ekainak 4, osteguna

20:00: Guatemalari buruzko diapositibak eta hitzaldia. Junkal Otxotorena eta Aitziber Bergarak emana.

Ekainak 5, ostirala

10:30: Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak eskolan.

22:00: 40 ordu filma

Ekainak 6, larunbata

10:00 Mendi ibilaldia. Eskolako ikasleekin naturaren inguruko jokoak.

18:30 Musika Eskolaren emanaldia zinemak.

20:00 Gilkixaro taldearen *Infernuko atean* antzezlan plazan.

Ekainak 7, igandea

11:30 Herriko talde eta koadriren arteko jokoak plazan.

14:30 Herri Bazkaria. Txistulariak eta txaranga bertan izanen dira.

17:30 Ingurutxoak.

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Postarien greba

Espainiako Gobernuak prestatu Posta Plan berriak postarien artean sortu dituen erantzun eta mobilizazioen oihartzuna **Ttipi-ttapa** aldizkari orrialdeetara ailegatu da. Azken zenbakian, Berako postari Javier Maritxalarren auzi horren inguruko iritzia jaso du hamabostekariak: «Espainiako Gobernuak posta zerbitzuaren pribatizazioa eramanen duen Posta Plan berria martxan jarri nahi du. Pribatizatuz gero, badakizu zer den, errentagarritasuna bilatzen da eta errentagarriak ez diren zerbitzuak alde batera utzi edo garestituko dira. Guk prezio egokiak di-

tuen posta publikoa defendatzen dugu. Inguru honetan, adibidez, kartak baserrietara eramatea ez da errentagarria. Hiri batean erraxa da, portalean sartu eta ehun karta uzten ahal dituzu, baina baserrira igual karta bakarrarekin joaten zara. Hori ez da errentagarria egundaino, baina gu jende guztiak bere kartak egunero hartzeko eskubidearen alde gaude, errentagarriak ez diren zerbitzuak errentagarriekin konpentsatuz. Horregatik gara zerbitzu publikoa».

Lanpostuen etorkizunaz kezkatuta agertzen da Maritxalar **Ttipi-ttapa**-n: «Errentaga-

rritasun soil-soila bilatzearen ondorioa da. Zenbat eta langile guttiago, orduan eta errentagarriagoa. Plan hori ateratzen bada, aitzin-erretiroak eta berehala etorriko dira». Posta zerbitzuaren egungo egoeraz zera dio Berako postariak: «Oraingo geldialdiekin zera erraten ziguten, 'zuek diru gehiago eta lan guttiago nahi duzue', baina mobilizazio hauek ez dute soldatarekin zerikusirik. Egia da gestio txarra izan dela urteotan eta estatuarenak izatetik erakunde enpresariala izatera pasatu gara ia enteratu gabe».

134 sinadura

Azterketen garaian gaude. Ikasleek Alde Zaharreko Liburutegian kurtsoan zehar hartutako apunteak memorizatzen ari dira. Eserleku guztiak okupatuak, ezinezkoa zait liburuak konsultatzea. Fitxategia bai, noski, eta gainera oso modu erosoan. Hiru gara, hiru, goizeko bederatzi terdietan fitxak arakatzeko ari garen txotxoloak. Jakin badakigu ezin izango dugula libururik eskatu bainan, hala eta guztiz ere, hor gaude izen zerrendak miatzen datu berri baten atzetik. Liburutegiko zaindaria lasai daude. Konektatua dagoen ordenagailu bakarra ere, lasai, hutsik. Badira beste bi ordenagailu plastiko batzuetan bilduak, inongo kablerik gabe, «hemerroteka eta ikerkuntzarako» salatxo txiki ilunean. Hor, bostpasei karreteletan ageri den bezela, «ikas-tea» espreski / prezeski galerazita dago. Arraroa bada ere kartel-txo hauek poztu egiten naute. Ni ere «Liburutegian ikastea debekaturik dago» esalditxo itsusi horren aldekoa izatea lortu baitute. Akaso «ikas-tea» «memorizatzea» hitzarekin ordezkatu beharko genuke... baina tira.

Non daude liburu-irakurleak? Liburutegian ez noski! Inondik irakurleek kanporatuak izan badira liburutegi honetatik izan da. Beraientzat gela ezin txikiagoa, estua (hamar lagunekin betetzen dena), penagarri bat, zabaldu zuten Kale Berrian. Unibertsitatean agintzen dieten liburuen bila dauden ikasleek beteta egoten da gehienetan eta fitxategien koltsultak ez dira batere erosoak. Han liburu hautatu batzuk etxera eramateko aukera ematen dizute eta, hortaz, benetako liburutegi baten zerbitzua betetzen du... Bestea ez dakit nola definitu ere, baina, behintzat, liburutegia ez da.

Azterketen garaian gaudenez Kale Berrikoa gaur hutsik, erabat hutsiki, zegoen. Koldo Mitxelena Kulturguneara ametsa da lurralde atzeratu honentzat. Utopia.

Bitartean Liburutegi berriaren ardura guztia burokraten esku dago. Eta hoiak ez dira batere mugitzen. Gure intelektualek ezta ere, apika soldata onegiak dituztelako eta liburuak koltsultatu baino nahiago dutelako zuzenean erosi edo, istituzio batean lanean ari direnak, istituzioa berari erosi ditzala eskatu.


Bukatzeko barkatu 135 sinaduraren. Titulu deigarria zelakoa jarri dut. Gai morbosoa eta interesgarriagoi buruz hitzegi behar nuelakoa itzaropentsu hurbildu denari: barkatu.

Nafarroako Liburutegi Orokorra ezin kokatu

Gobernuk Intendentziako orubean kokatu nahi du, baina Udalak ez du Iruñeko Alde Zaharretik atera nahi

Egun San Frantzisko Plazan dagoen Nafarroako Liburutegi Orokorra ezin lekutuz dabilta Gobernu eta Iruñeko Udala. Lehenak Intendentziako orubea eraman nahi du eta bigarrenak, berriz, ez duela hiriburuko Alde Zaharretik aterako dio. Ezbaiki luze dirau eta bien bitartean, erabiltzailea gaitzaille, eskaintzen den zerbitzua eskasa delako.

ezin kokatu



Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko Plazan kokatzen den Nekazaritza eraikina, Nafarroako Liburutegi Orokorra lekutzen duena, alegia, ez du aspalditxoan gehiagorako ematen. Hori dela eta, Gobernuak ez ezik, Udalak ere aspaldian beste kaka-peneren bat aurkitu behar zaiola argi adierazi dute.

Bi aldeak irtenbideren bat aurkitu behar dela badiotere ere, ez dira ados jartzen kokapenean. Liburutegi Orokorra 1971an ezarri zen Nekazaritzako eraikinan. Tomas Yerro, Principe de Vianako zuzendariaren us-tetan orduan jadanik bazituen gabeziak: ez zuen leku nahikoa eta ez zen pentsatu liburutegi moderno batek behar dituen beharretarako. Egoera gero eta larraigia dela ikusirik arazoa azken hilabeteetan azalera-tu egin da.

Joan den urrian bildu ziren Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala Liburutegi Orokorra Santo Domingoko hortuetan kokatzeko aukeraz mintzatzeko.

Udalak aginduta Patxi Mangado arkitektoak hortuetarako egindako proiektua ikertu zuen. Aldi berean, kokapen hori ez zela egokia argudiatzen zuenak, Principe de Viana erakundeak, beste bi txosten egin zituen Liburutegia hortuetan ez paratzeko gomendatuz. Jakina denez, uztailean Principe de Viana erakundeak Iruñeko harresitua (Gotorlekua, harresiak eta San Kristobalgotzarteariaren ondare historiko aldarrikatzea proposatu zuen Unesco (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakunde) Beraz, arrazoi juridiko-ondarekoek Santo Domingon ez egiteko diote. Hori guztia aintzat hartuz, Principe de Vianak Intendentzia izandako orubean proposatu du kokapena. Txosten dantzian eta ika-mikan murgildutik alkateak zein presidentek batzorde mistoa eratu zuten liburutegiari toki jakin bat aurkitzeko.



Tomas Yerro: «Liburutegi Orokorrak informazio, topagune eta formazio tokia behar luke eta hori egun ezinezkoa da»

deak eta bakoitzak bereari eusten dio temati. Bi erakundeen arteko eztabaidak jarraitzen duen bitartean, erabiltzailea da gaitzaille. «Juindarrekk duten biblioteka zerbitzua oso eskasa da, herrialdeko beste toki batzuetakoa baino txarragoa da», dio Tomas Yerrok. «Behin kokapen guztiak ikertuta Intendentziako egoitza izandakoa eta egun aparkaleku denak ditu nahi genituzkeen baldintza guztiak: sarbide, komunikazioa eta ikuspen onak. Etengabeko joan-etorria du eta Alde Zaharra eta II Zabalgunearen artean kokatuko litzateke. Bestalde, Auditorioa eta Kongresuen Jauregia ondoan kokatu da, Entzutegi Zahar-raren atzean dagoen aparkalekuan.»

Baina argudio horren aurrean Udalak bereari eusten dio eta Liburutegi Orokorra Alde Zaharretik atera nahi duela dio. Mikel Markinez, kultura gaietarako Iruñeko alkateraren aholkulari arabera, Udalak liburutegia Alde Zaharretik atera nahi du, Santo Domingoko hortuetan ez bada, beste nonbaiten kokatuko litzateke. «Besteak beste aipatu dira Erregeordearen Jauregia edo egungo liburutegiaren parean dagoen San Frantzisko Eskola. Eskatzen diren ezaugarri teknikoak badituzte eta leku sobera», azpimarratu du. Baina Udalak ez du argudio hori bakarrik mahai-generatu. Santo Domingoko hortuen ondoan kultura eta Hezkuntza Saila eta Nafarroako Museoa daude eta Artxibategi Orokorra ingurura eraman nahi da. Hori dela eta, kultura bilgune horiet guztietan Liburutegia gehitu nahi zaie. «Liburutegiak erakargarria izan behar du eta Alde Zahar-raren dinamizatzaile. Hori da interesatzen zaiguna», argudiatu du Markinezek. Dena den, ez da

uste berekoa Tomas Yerro eta Liburutegi Orokorrak Alde Zaharra dinamizatzeko duela pentsatzea ez da egokia. «San Frantzisko Plazan kokatzen den liburutegia Nafarroako Liburutegi Orokorra da. Plaza liburutegiaren zerbitzu orduetan eta behin isten denean ere aurkezten duen irudia ez da nahi genukeena. Arazoak izan ditugu liburutegian, behin baino gehiagotan sartu izan dira drogazaleak komunetara droga zizatzerara eta itxi egin izan behar ditugu. Beste behin, tekniko bati labana atera zion lapurreta sartu zen batek. Liburutegi orokorra batek egun batetik bestere hor dagoen gizarte egoera aldatuko duela pentsatzek ez du zentzurik.»

Liburutegi orokor baten ikuspeirik ez

San Frantziskoko liburutegiak egun 247.142 libururu biltzen ditu. Joan den urtean 64.200 ale utzi zituen mailegutan eta gainontzeko 182.942ak kontsultarakoditu. Egun dauden liburutegi moderno en egiturá jarraituz, Donostiako Koldo Mitxelena, kasu, liburutegiak gordetzen dituen fondo gehienak erabiltzailearen zerbitzura egoteaz gain, eskura errazak izan behar luketeki. Baina hori ezinezkoa da harat hurbiltzen denarentzako, fondo gehienak sotoan edo beheko solairuan daudelako eta erabiltzaileak zaharkitua dauden esku-fitzategien bidez egin behar du sistema ez dagoelako informatizatua. Hori «kronikoa» bihurtu den beste arazo bat gehitu behar zaio. Gaur egun, Liburutegi Orokorraren erabiltzaile gehienak, kasik %100 hara ikastera joaten diren ikasleak dira.

«Hori astakeria da. Gaurkotutako fondoak ez ezik, iaera historikoa duten fondo auznit dituen liburutegi batentzako. Ez da aprobetxatzen irakurketa lekuak ikasleak betetzen dituztelako. As-

Intendentziako orubean kokatu behar duen Principe de Vianako liburutegia. MIKEL SAIZ

den informazio orokorra. Finean, kulturaz landa, hiritarrari interesatzen zaion beste edozein gai. «Liburutegia informazio, topagune eta formazio tokia behar luke eta hiri egun ezinezkoa da», dio Principe de Vianako arduradunak. Bestetik, Nafarroako liburutegi sarearen muina izan behar du. Egun 87 liburutegi daude herrialdean. Praktikan

Sarantziskokoa Iruñerriko sarearen buru

Nafarroako liburutegi sarearen buru den Jaime del Burgo, egun Principe de Vianako liburutegia koordinatzen duen arduraduna da. Hori dela eta, Udalariek bereari erantzukizun asko eman behar diote. Hori dela eta, Udalariek bereari erantzukizun asko eman behar diote. Hori dela eta, Udalariek bereari erantzukizun asko eman behar diote.

Egokiaz, San Frantziskoko liburutegiak hiritarrei erantzukizun asko eman behar diote. Hori dela eta, Udalariek bereari erantzukizun asko eman behar diote.

kotan ez dute han dagoen agiririk kontsultatzen eta besterik gabe ikastera doaz. Hori dela eta, postu jakin batzuk ikertzaileentzat gordetzea. Nafarroako liburutegi askok Liburutegi Orokorrak baino itxura eta zerbitzu hobetoa dute. Liburutegi hori aurkeztu ezina da», nabarmendu du Yerrok, kezkatuta.

Principe de Vianako zuzendariaren aburuz, Udalariek Nafarroako Liburutegi Orokorrak zein eredu hartu behar lukeen baina gehiago haren kokapena interesatzen zaio. «Udalak ez du alpatzen zein liburutegi eredu nahi duen. Berak uste du hor kokatu daitekeela liburutegia, hiririaren erdian dagoela argudiatuz eta azalera nahikoa duelako. Hark hirigintza du lehen-tasun. Guk aldiz diogu, liburutegi orokorrak behar duela izan lehenik eta behin, Foru Komunitateko liburutegia. Hau da, bildu behar du herrialdeak duen ondare historikoa, egun dituen fondoen alde garrantzitsua eta balioetsua dena, hasi XV. mendearen bukaerari inprimitutako liburutegiak hasi eta XIX. menderarteakoak», gaineratu du.

Era berean, beste bi ezaugarri erantsi dizkio Yerrok asmoari. Batetik, liburutegiak hiri guztien zerbitzu publiko izan behar luke. Horretarako liburuak ez ezik, eskaini beharko liriateke ikus-entzuteko instalakuntzak, diskak, bideoak, aldizkari ugari, egunkariak eta askotan ahatzen den informazio orokorra. Finean, kulturaz landa, hiritarrari interesatzen zaion beste edozein gai.



liburutegi publikoen sarea (Iruñerrikoak eta besteak) eta Liburutegi Orokorra ez daude uztartuak eta horrek ez du zentzurik. «Liburutegi orokor bat topagunerako toki gozosa izan behar du, liburu erakusketak egiteko baliagarria, argitalpenak aurkezteko eremua, eraikina egokia izan behar du, pasabideko kokagune batean, eraikinak berak izan behar du erakargarria eta San Frantziskokoarekin ez da hori gertatzen».

Dena den, liburutegiaren bide arantzatuak badu aipatzeko onik. Gabeziak handiak diren arren, Yerrok adierazi duenez, eskaintzen den zerbitzua ez da txarra. «Traba eta gabezia handiak baditugu ere, ematen den mailegu zerbitzua handia da. Eskaintzen den zerbitzu ona bertan lan egiten duten profesionaltasunari zor zaio eta ez liburutegiak dituen baldintzei, azpimarratu du.

Udalak Santo Domingoko hortuetan kokatu nahi luke. MIKEL SAIZ

aldeak oraindik zehaztu ez den beste bilera batean biltzeko konprometua besterik ez dute hartu oraindik. Nolanahi ere, Yerrok politikariek teknikoak aholkutakoa aintzat hartuko dutenaren itzaropena du. «Nafarrantzak iruzurra eta arduragabekeria politikoa litzateke milioi asko inbertitzea egun dauden eskakizunenetara egokitzen ez den liburutegi bat egiteko. Udalaren nahi politikoa bat dela medio, Liburutegi Orokorraren etorkizuna hipotekatzen ariko ginatke», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta



San Frantziskoko plazako egoitza bizi-gia da Liburutegi Orokorrarentzako. MIKEL SAIZ

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Itxaropenak oro erreka
joan ez zireneko

Berriki Andolin Eguzkitzak 36.eko gerra aurretiko Nafarroako giro abertzalea oroitarazi digu bere azken elaberrian, baina beltzetik zurira arteko nabar guziak ez zizkigun aipatu



EZ DA LUZE IGARO ANDOLIN Eguzkitza bizkaitarrak, beste behin Nafarroaren zirrarak aztiturik, gurea aitzaki izkiriagai harturik, lan berria eskeini digunetik, *Herioaren itzalpeetan* lanari buruz ari naiz naski. Txalapartakok oso gai nafartzat zutelarrik, aurkezpena Iruñean egin zuten, eta hantxe izan zuten gure unibertitate irakasle finduak Nafarroan horren zoragarri zotukatzeko lain ikusi duena azaltzeko aukera. Niketz bederen, elaberria den arren, historian oinarria duen neurrian, aipamen haborearen egarriz geratua nintzen behin irakurrita, eta literatura aldetik ezer gutxi eskeiniagatik, Clavería Arzak arestikoa ere moldetik elkarturik Nafarroako jeltzaleen atzen/lehenbizitza mendurrenazko bi liburukiduna osotatu izan dut. Guztiarekin, badira hainbat izen, gertaera zein toki, nahikoa oharkabeen pasatu ohi direnak, bi hauetan ere. Izan ere, giza gauzak bitartasunean sailkatzeko ohitura undatsa izaten ohi baitugu, gurean ere, eta beltza/txuria, bai/ez, ona/txarra, gu/haiek eta gisa horretako pare nazkanteekin batera, jeltzale/espainiarzale proposatu ohi zaigu, usuenetan, hagitze korapilotsuagoa izan deno.

Nahiz Pakita Fernández Zabaleta bilduma jeltzale gehienetan aipatu egiten den, ez ohi da bere alor literarioa kontutan edukitzen. Jimeno Juriok fagot jole famatuaren alabatzen aurkeztu zigun. Politika mailan, bederen, izen sonatua zen berea. Emakume Abertzale Batza 1922.ean sortu zen Bilbon, eta handik gutxira, Primo de Riveraren agintaldian, debekatua izan bazen ere, 1931.ean berregin zitzailgun, Bizkaitik hasita. Nafarroako lehenbiziko taldea Iruñean eratu zen 1931.eko urriaren 29an, eta Lizarrakoa azaroaren 14an. Orduetik talde ugari agertuko ziren Nafarroa osoan zehar 1932. urtean: Agoitzen-urtarrilaren 29an-, Leitizan-urtarrila-

ren 31an-, Tafallan -otsailaren 24an-, Martzillan -apirilaren 7an-, Goizuetan -apirilaren 30an-, Arbizun -maiatzaren 16an-, Obanosen -ekainaren 5ean-, Auritzen -uztailaren 27an-, Zangotzan -abuztuaren 18an-, Iturenen -urriaren 20an-, Atarrablan -urriaren 21an- eta ezagutzen ez diren datetan Elizondon, Irurtzunen eta Sesman ere bai. Gerratea hasi zenean, bazeuden 30 talde gehiago sortze bideetan, eta 2.000tik gorako bazkide. Iruñeko taldearen lehenbiziko lehendakaria Pakita Fernández Zabaleta izan zen, 1934.ean egin bigarren bilkuretan idazkari jarraitu zuela.

Ezaguna egin zen hizlari bezala, eta aunitzetan arizan zen jeltzaleen aldeko botoa eskatzen herrietan eginiko mitinetan. Manuel Irujorekin batera Tafallan izan zen 1932.eko abenduaren 8an, eta 1933.eko hauteskundera arako mitinak Olaguen eta Ostizen -azaroaren 12an-, eta Urrotz eta Monrealen -azaroaren 13an- eman zituen, Jose Agerre euskaltzainarekin batera. Julia iruindarra ez zen euskalduna sortzez, baina zalui euskaldunduko zen. Blas Alegria lakuntzarrek bere *Gure ama*-n honela jasotzen zuten: «Juli Fernandez anderetxua: bein baño gelaotan itzaldi sendoak egin ditu euskeraz. Aietako bat argitaratu du Euskalerraren Alde aldistingiak, eta beste bat, euskara ikasten ari zantetik urte bete esana, bigarren euskalgunetako itzaldia, Bermeon». Hitzaldi horren gaia emakumeen etorkizuna genuen, eta 1926.ean argitaratu eman zuten.

Migel Jabier Urmeneta Iruñeko bihotzean jaio zen, Sarasate pasealekuaren parean, 1915.eko azaroaren 26an. 12

anal-arrebetan nagusia, aita Ataulfo Urmeneta Zidriain zuen. Cubako gerratean Carlos V. itsasontzian egona, matematika irakaslea eta udal aurrezki kutzako zuzendaria izan zena, baita *La voz de Navarra*




egunkariaren kolaboratzailea bera izan zen 1931.eko apirilaren 14an errepublikari ongi etorria eman ziona. Ama, Maria Ajarnaute Arratibel zuen. Gure

Migel Jabier arte eta lanbideen eskolan ikasi zuen -akaso Manezaundi irakasle zukeen-, eta 16 urterekin jada *Amaiur* aldizkarian kolaboratu zuen *Gaur* ezizenez Euzkadiko istorio grafiko batekin. Ingelesa Kampaia karrakako Stella Hatwayekin ikasi zuen, eta euskara Higinio Jauregi Idiazabalgo apezarekin. Alabaina, gerratearekin, reketek sartzea erabakirik, zer gerta ere, Somosierrara joan zen, eta hantxe hasi zuen karrera militar naroa: 1941.ean Dibisio Urdinean Errusian, baita geroxeago Kansasko Fort Leavenworth-en ikasi. Haatik, 1954.ean aurrezki kutzako zuzendari sartu zen, aitaren ordeko. 1957.ean Kontxita Otsoa Goienetxerekin ezkondu, eta handik gutxira, Iruñeko alkatea izan zen Xabier Pueyoren ostean. Bere ibilaldi politikoa hasi baizik ez zen egin: 1964.ean foru diputadua izan zen Felix Uharte Goñi karlistarekin. Orduan, euskararena ahanztorratu ez zitzaiola garbi utzirik, *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria, *Orreaga*, Amadeo Marko Ilintxetarekin sortarazi zuen 1966.eko otsailean, handik gutxira Euskaltzaindiak laguntzaile izendatu zuela, ber urteko azaroaren 25ean hain zuten. 1977.ean Xalbador saria sortuko zuen, hil aurretik oraino, euskara ikasle zirauela.

etorri ahallean

Patziku Perurena



Bizia ehundegi

HALA DIO J. SARRIONANDIAK: «Ehundetzea da izkiriaren lehen metafora.

Philomelaren mito grekoan agertzen da iadanik, Tereok bortxatu eta muturik utzi du oihanean, eta Philomelak oihal bat ehunduz eta bordatuz kondatzen du bere istoria eta Tereoren krimena salatzen. Oihal hori da literatura, bizitzak egiten dizkigun kalteen aurkakako babes.

Eta Ehundegiko Dama izeneko artikuluan, gai berari buruzko gogoeta egiten du: «Ehundegiko dama, W.H. Hunt pintore preraphaelistaren ustez, talaian dagoen arima da, isolamendu urrin eta ilunean, eta lekoreko amodio deiari amore emanez gero harian endregaturik galduko da».

Betidanik liluratu izan nau ehule kontu metaforiko honek, bere aldaera guztietan: ehundu, josi, irun, brodatu, zurtitu... Nahigabeen datoz aditz sorginok nere sentimenduen ehundegira. Eta inola ere ezin dut ekarri gogora, gizakion munduko sinua, ehule baten eskuetan nahasten diren bi hari (zinezko eta grinezko) horien irudipean baino ederkiago.

Esku biak, orratzei eraginez, zinezko oihal zuria ehuntzen, eta aldi berean, gogobihotzak, arimari eraginez, irudipen eta grinezko oihal gorria ehuntzen. Bi hariak, zuria eta gorria, zinezkoa eta grinezkoa, batera ari dira ehulearen baitan, baina ezin dira elkar lotu, ezin elkarrengandik askatu, eta haletan jadanik betirako endregatua, galduko dizu bere burua ehuleak, gizonak.

Eta J. Sarrionandiak gogoratu digun Arthur erregearen leiendako mito horren oihartzun berberak ditu 'Brodutzen ari nintzen' izeneko gure kanta ezagunak ere:

Brodutzen ari nintzen ene salan jarririk

Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik...

Brodatze lana utzi eta badao dama gaztea itsas kantuaren atzetik, baina marinela kantariak bere unzia gaitatu du. Amodiozko ametsetarik esnatzen da dama gaztea atzera, eta gurasoen gortera nahi luke itzuli, baina

ezin, itsas zabalean galduta baita ordurako belauntzia, eta:

Dama gazte xarmentak hor hartzen du ezpata!

Bihotzetik sartzen ta, hila doa lurrera!

Eta Arthurren aipatu leienda gorpuzten duela frogatzeko, ikus ahalpaldi guziak Kantuz (Elkar, 1980) kantu liburuan, 83-84 orrietan.

Mito honetan, itsas kantuak xoratzen du ehulea, eta hain zuzen, kantaminaren sinbolotzat gelditu zaigu ehulea (garbarria, gorrulea, dendaria, joskina) gure usarioan. Niri halaxe gogora arazi didate behintzat gure jakintsu xaharrok.

Azpirozko Anjel Otsanbelak, behiala Gorritiko Danbolinaz: «Euntzalea emen zan ori, ta eune itten danbolin joaz ariazten emen zittun gabez peonak lanen».

Leitzan Miel Sukuntzak esana: «Leitzalarren, Urkizun izakio Yontzarko arbiborda, ta an artzai zegoala, artilezko galtzerdik itten aitzen gure attuna zena kantari, ta ala sumatzen zuenen: ara! asi dok Urkixuko kaltxetero».

Aitari Goizuetan jasoa: «Neku len leno txabol txar bat besteik ez men uen, ta bizi men uen euntzalea; senar emaztek bizitzen emen ittuen, ta kantari aitzen men ittuen eunkik itten».

Ehuleak, bistan da, xarma berezia utzi duela gure gurasoen oroimenean, eta gure irudimenean, eta esan gabe doa, maiz kasta eta bizimodu xeibre samarreakoa genuela. Hiru Truku-en baladan ere, 'Zazpi Nobixoa' izenekoan, honela ageri zaigu:

*Seigarren nobixoa Ustakio eulla,
prakasar ifusente, koitgedu pobria.*

Beren negarkanta eta danbolin, gure herriskok liluratuz, aise bertakotu ziren ehuleak, eta gure folkloreak (batipat ahizkoak, kantak, bertsolaritzak) asko zor die.

Eta ehule xaharrik omenez, gogora dezagun, testo hitza testus hitzetik datorrela, testo / aditzaren partizipio iraganetik, eta ehundu esan nahi duela sortzez.

Ziria

• Motxorrosolo •

Eraztuna

HURRENGO URTEKOAK PRESTATZEN HASI AK DIRA. ARRANTZA GARAI. Oraingo honetan, Aitor-eneko barrutian ari dira. Arrantza egiteko tenorean arte ezberdinak baliatu daitezke. Saiatuak, haztegetakoak ez diren izokinak harrapatzen, trebetasuna erakutsi beharra dauka. Bakarren batek, amu gisa, eraztuna baliatzen zuen. Eraztunaren garaiak igaroko, atari aldean, eraztungileek bere horretan diraute.

Ubaldo Gonzalez

Ekimerkatuko arduraduna

«Elefantean paseatzen den txinaurria da ekimerkatua»

Ekimerkatuk eta Eroski kooperatibak akordio bat sinatu berri dute. Aurrerantzean Ekimerkaturen bidez merkaturatzen diren produktuak kooperatibak dituen salmenta guneetan erosi ahal izanen dira. Ubaldo Gonzalez, Nafarroan Ekimerkatuko arduradunaren iritziz, kontsumitzailea salerosketa horren atzean dagoen errealitateaz ohartzea nahi dute.



● LUIS AZANZA

NAFARROAN HAMAIIKA URTE BADA-ramatza ere Kanariar Uhartetako doinua gordetzen du Ubaldo-
ren hizkerak. Elkartasunaren espar-
ruan aspaldian murgildua, uraren
eramanaren aurka doazela bada-
kien arren, beharra dutenekin lan
egiten gozaten dela nabari du.

■ **Kudeatzen dituzuen produktuak merkaturatzeko akordioa sinatu berri duzue Eroskirekin. Zertan datza?**

Produktuen soberakina dugu eta kontsumitzaileei horiek saltzeko beharrezkoak ditugu gune egonkor-
rak. Ohikoak ditugun kontsumit-
zaileez gain, beste kontsumitzaile-
etara ere iritsi nahi genuke. Eroskik
bere salmenta guneak eskaini diz-
kigu ohiko kontsumitzaileari, hau
da, elkartasunarekin zerikusia ez
duen kontsumitzaileari, produk-
tuok erosteko aukera emateko.

■ **Dena den, salerosketa arrunta egiteaz gain, beste helbururik izanen duzue.**

Bai. Helburua ez da bakarrik
ahal den gehien saltzea. Produktu
horien sal-erosketaren atzean da-
goen errealitatea ezagutarazi nahi
dugu, batipat. Produktuekin produk-
toreen eta kooperatiba horien
informazioa doa.

■ **Elkartasunezko merkataritzaz asko hitz egiten da. Dena den, horrelako ekimenek Hegoaldeko herrien arazoak errotik mokatatu beharrean, ez al dira askotan adabakiak jartzera mugatzen?**

Merkataritza orok, elkartasunez-
koa izan arren ere, badu bidegabe-
keri zerbait. Produktoreak ez du
inoiz lortzen bere garapenerako be-
harrezkoena duena, merkaturaren
legeak ez duelako askotan hori ahal-
bidetzen. Kontsumitzailearentzat
bidezkoa izan daitekeena, hau da,
produktua merkeagoa izatea, produk-
torearentzat ez da bidezkoa ez

soslaia

Nafarroara etorri baino lehen
Kanariar Uhartetako
sindikalismoan aritua da
Ubaldo Gonzalez. Zuzenbide
ikasketak hasi eta bukatu gabe
utzi zituen. Bizitzaren
egunerokotasunak eta
elkartasunaren jarduerak
eman dio liburuek eskaini ez
zioten eskarmentua. Iruñera
Santa Luciako proiektuan
ijitoekin eta portugesekin lan
egitera etorri zen.

Santa Luciako utzi eta
Ekimerkatu proiektuan sartu
zen duela sei urte. Geroztik
elkartasun merkataritzaren
gorabeherak ezagutu ez ezik,
irmoki bultzatu du Nafarroan.
Herrialdean dauden elkartasun
dendez gain, Hegoaldeko
produktuentzako merkatu
zabalago bat bultzatzen
jarraitu nahi luke. Hori
gutxi balitz, produktu berriak
merkaturatu nahi lituzkete, zuku
tropikalak kasu.

Lana eta aisialdia uztartzen jakin
du. Gizartean arlo horiek
banatzeko dagoen joerarekin ez
dator bat, eta dena bateratzen
omen du bakean eta lasai
bizitzeko. Atsedean hartzen
duenean, familiarekin egoteaz
gain, beriziki irakurri egiten omen
du. Baina beti, nola ez,
elkartasunarekin zerikusia
duten gaiak.

duelako behar duen
soldata lortzen. El-
kartasun merkatarit-
za produktoreak
ohiko merkaturan
baino salneurri hobe-
agoa lortzen duen
heinean ona da. Bes-
talde, Hegoaldeko he-
rrialdeen garapena
hango errealitatea
aintzat hartuz egin
behar da, horrela
bertako egitura eko-
nomikoa sustatu da-
din. Elkartasun mer-
kataritzatik saiatzeko
gara hango egitura
ekonomikoa ez bor-
txatzen. Han dituzten
produktzio baliabide-
ak aprobetxatu eta ir-
tenbide produktiboa

ematen diegu. Horrela lortzen dugu
bertako biztanleria han gelditzea eta
ez du zertan emigratu beharrik hiri
handietara. Horrela etorkizuna eta
jarraipena lortzeko baliabideak es-
kaintzen dizkien egitura sortzen do-
az eta horrek sortuko du finean ga-
rapena. Elkartasun merkataritzak
behin behineko enpresa egiturak
ekidin nahi ditu, garapenak zeriku-
sia izan behar du bertako errealitate
kultural, sozial eta ingurugiroa-
rekin, horrekin zerikusirik ez ba-
dauka izan daiteke adabaki hutsa.

■ **Mendebaldeko merkatu indar-
tsu eta globalizatuaren aurrean
zein toki duzue?**

«Kontsumitzaileak
kontziente izan behar
du elkartasuna
proiektuak diruz
laguntzea baino zerbait
gehiago dela. Bultzatu
dugun ekintzarekin
elkartasun
iraunkorragoa lortzen
da, zonalde jakin
bateko egitura
produktiboa
mantentzen delako»

Elefantearen pare-
an dagoen txinaur-
ria gara. Elefante-
an barna paseatzen
den txinaurri txikia
da elkartasun mer-
katua. Mendebalde-
ko merkatua (ele-
fantea), ez da
konturatu ere egi-
ten gure presen-
tiaz. Hori da egun-
go errealitatea.
Joan den urtean
Estatu Espainiarre-
an gure salmentak
700 milioi pezeta-
koak izan ziren (28
milioi libera). Diru
hori huskeria da,
Eroski berak aste
batean edo hilabete
batean egiten duen

fakturazioa delako. Baina, dena
den, gure lanak etorkizunean era-
gina eta zabalkuntza izan dezake.
Ideia da txinaurri asko izatea arian
ariz elefantearen kolorea aldatze-
ko. Europako beste herrialde
batzuetan 25 urte daramate elkar-
tasun merkataritzarekin lanean
eta jarrerak aldatzen doaz. Aleman-
ian adibidez, elkartasunezko
merkataritzako produktuak elkar-
tasun elkarteen bidez ez ezik ohiko
merkatal guneetan saltzen dira. Ez
dugu salmenta gune handietan
irla bat sortu nahi, interesatzen
zaiguna da Eroski osoa elkartasun
proiektua izatea. Dena den, pro-

duktu jakin batzuekin lortu daite-
keela frogatuta dago, Europako
herrialde batzuetan, Alemania eta
Holanda, kasu, bilioiak faktura-
tzen dira.

■ **Zergatik erosi behar du kontsu-
mitzaileak zuek eskainitakoa?**

Kontsumitzaileak merkaturan
erosten duen edozein produkturen
atzean errealitate sozial bat dago.
Bera ez da jakitun ordaintzen duen
prezioak baduela eragina ingurugi-
roan, ekonomian eta gizarte sare-
an. Produktu merkeena erosiz
maiz Hegoaldeko herrialdeetan
bidegabekeria handia egiten dugu.
Aldiz, produktzioaren kostuari
gehiago dagokion salneurria duen
produktua eskuratzean lortzen ari
gara miserian bizi diren familia
asko egoera hortatik ateratzea. 20-
50 pezetako aldea ordainduz fami-
lia askoren egoera aldatu daiteke.
Kontsumitzaileak kontziente izan
behar du elkartasuna proiektuak
diruz laguntzea baino zerbait
gehiago dela.

■ **Zenbat kooperatibarekin egiten
duzue lan?**

Lan egiten dugu Nikaragua, Me-
xiko, Txile, Ekuador eta Peruko ko-
operatibak biltzen dituzten elkarte-
ekin. Hamabosten bat elikagai mer-
katuratzen ditugu ez dugulako
gehiago merkaturatzeko aukerarik.
Batez ere saltzen ditugu kafea, azu-
krea, marmelada, ezitia eta txokola-
tea.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Manifestua

Nik gaitzesten dut Lasa, Zabala, Zabaltza eta Basajaunaren heriotza eta afera horiek argitzea aldarrikatu egiten dut. Nik gaitzesten dut Guardia Zibila eta Polizia Nazionalaren jokaera, ez bakarrik Herri Urratsen edo Berako Nafarroa Oinezan, baizik eta Nafarroaren Egun aunitzetan eta hainbat tokitan ere. Nik, jakina, tortura gaitzesten dut. Nik euskal presoak Euskal Herrian ikusi nahi nituzke eta kondenaren hiru laurdenak bete dituztenak etxean. Nik German Rodriguezen hilketari eta GAL gaitzesten ditut eta Esfatuari Indarkeria ez erabiltzeko eskatzen diot, euskal afera elkarrizketatik abiatuta konpontzen saia dadila eskatzen diodan bezala. Nik salatu eta gaitzetsi egiten dut UPNk eta PSOEek euskararekiko duten jokaera maltzurra. Nik ez dut subentziorik nahi. Nik ez dut inolako marrik paratu nahi, batzuen buruan marra, muga eta mamu gehiegi ikusten dudalako. Nik ez dut hildako bakar bat gehiagorik ikusi nahi.

Ziur aski gauza aunitz alpatzea atzendu izanen dut ene manifestu ttipi honetan eta, alde aurretik, barkamena eskatzen dut, baina XXI. mende atariko nafar euskaldun horietako bat naizen aldetik, nik ere hutsuneak ikusten ditut zorioneko manifestuaren inguruan idatzi diren zenbait artikulutan, mamia heldu ez diotelokan nago-eta. Izan ere, ondorioztatu dudanez —eta gaizki ulertu badut, zuzendu, otoi—, biziki ongi dago euskarari paratzen zaizkion oztopo guztiak salatzea eta gaitzestea, ETaren jokatibidetik datozenak salbu. Ulertu dudanez, lehen jarrerak batzen gaitu, eta bigarrena —alegia, ETaren jokaera salatzea—, ordea, etsaiari argudioak eskaintzea eta sorgin-ehizari bidea ematea besterik ez da. Barkatu, baina ez nator horrekin bat. Ene ustez, kontua da euskarari trabak kentzea, oztopo horiek non-nahitik etorrira ere. Eta, nere iduriko, ETaren indarkeriak traba asko paratzen dizkio euskararen garapenera, bederen, Nafarroan.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Zangoza:** Nahi ta Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan Auditoriumean.
- **Iruñea:** Pablo Sarasate orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarren Antzokian. Orkestrak Mozart, Stravinsky eta Haydnen piezak interpretatuko ditu.
- **Izaba:** Charo Indartek eta Ernesto Schimedekek kontzertua eskainiko dute bihar, 21:30etan, elizan.
- **Garralda:** Quinteto Clasiko ganbara musika taldeak kontzertua eskainiko du etzi, 21:30etan, elizan.

ERAKUSKETAK

- **Erriborri:** Carlos Fernandez-Ardavinek bildutako erloju gotikoen erakusketa ikusi daiteke ekainaren bukaera arte.
- **Tutera:** Lorenzo Quinnen eskulturak biltzen dituen erakusketa dago zabalik bihar arte.
- **Elizondo:** Fermin Arceren eskultura zaharberri eta birproduzitu erakusketa zabalik dago Kultur Etxean ekainaren 10era arte.

BESTELAKOAK

- **Altsasu:** Heldu den iganderako txirrindula martxa antolatu du Bardeetara Sakanako Kirol batzordeak. Irteera goizeko 7:00etan izanen da Altsasuko autobus geltokitik. Izena ekainaren 4a baino lehen eman behar da 46 48 66 telefonoan, Altsasuko Mendigoizaleak taldean edo Irurtzungo Iratxo tabernan.
- **Berriozar:** Bertso afaria izanen da bihar Zulo Alai elkartearen 22:00etan. Bertsoaren ariko dira J.M. Irazu eta Estitxu Arozena.

► **Iruñea:** Ekainaren 7an Bardeetako Tiro Poligonoaren aurkako ibilaldia egingen da. Hori dela eta, Dortoka nagia taldeak txirrindula martxa antolatu du Bardeetara. Martxa ekainaren 5ean aterako da Gaztelu Plazatik 17:00etan. Pitillasko aintzirara joan eta Beireko aterpean igaroko dute gaua. Larunbatean Erribe-

rrira joanen dira autobusez eta ondoren bizikletaz Bardeetara abiatuko dira. Informazio gehiago edo izena eman nahi duenak dei dezala 948 21 05 30 telefonora edo pasadadila Merced kaleko 18, behetik.

► **Bera:** Bittor Aierdi Elkarriko koordinatzaile nagusiak «Eraiki: bake prozesu batera-

ko proiektu bat» hitzaldia eskainiko du gaur, 20:30etan, Berako Gure Txokoa elkartearen Irlandan bizitzen ari diren bake prozesuaren eredu Euskal Herrira ere ekar daitekeela argudiatuko du.

► **Iruñea:** Nafarroako ondare naturala zeharkatuko du. Izena eman nahi duenak 22 43 24 telefonora deitu behar du.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Idatz ezan zerbait alaigarria, triste sentitzen naizenerako.



Ez da hain erreza.